

8. Herexia Iruña-Beleian / Herejía en Iruña-Beleia

Felix Zubiaga Legarreta



8.1. Nor / CV

Filosofia eta Erromanikar Letretan Lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean, Unamuno y las lenguas peninsulares (1973) tesiarekin. Doktorautza Ikasketak (1996-1998) *Vascuence y mitoanálisis* lana egin zuen.

Honezkero, liburu hauek argitaratu ditu: *Vascuence y mitoanálisis / Euskararen ereduak / Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan / Euskal mito-erritoak eta euskara / Apellidos y nobleza / La onomástica, oído de la prehistoria o el vascoeuropeísmo / Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence./ Antiguo Testamento del vascuence / Euskararen jakinduria / Euskara mito bizia / Origen y desarrollo del lenguaje (según el vascuence) / Zuzentza eta eskubidea euskararen oroitzan / Euskara bere bitan (psikoaztertuz) / Vascuence, inconsciente colectivo / Amarekin topo / Dic. Etimológico según el vascuence Hitzen jatorria.*

8.2. Komunikazioa euskeraz / Comunicación en euskera Communication in Basque

a) Iruña-Beleiako ostraken garaia, herexien unea

Erromatarren garaia Amaren magal zaharreko kulturaren amaiera eta erromatar Inperioko aitatiar agintearen hasiera izan zan. Iruña-Beleian aurkitu den ara be horren lekuko da, uria Ama Inkoaren zaindaritzapean eraikia izan zena eta aitatu ara oparitzen dauen morroia bera be Ama Inkoaren joputzat emoten dau burua.

“Honek eritsi barrikoak dira” –esango eben uritarrek etorkinekaitik- guk Inkoa Amatzak geunkan eta halatan adoratzan eta besteok ostera, Aita dela dinoe eta aitatzat adoratu behar dogula... *Ama Inkoaren* harrizko irudi ederrari burua moztu deutsoe eta ez dakigu nora eroan daben, ez eta ze *Dama*-edo ipiniko deuskuen ordezkoo... Zuek leengo eritsian jarraituko dozuela”...?

Eritsiak eritsi, eritsi ez bardinak sortu ziran Iruña-Beleian. Baina eritsi batzuk gaiztotzat emonak izan ziran, batzuk etorkinenak zirelako edo beste batzuk botere barrien aginduz ezarriak izan zirelako eta *eritsia*>*eresi* da orduan, grekoentzat, barriz, >*herejia*, *h* ta guzti, batzuk besteei *hereje* deitzeraino.

Iruña-Beleiako Valentina etxean etorkinek eskola barria antolatu eben halatan, kristinau deituriko maisuek eta han euren otoitzak egiten eutsezan Jainko kurutzatuari eta marrazkiak egiten eta idazten erakusten eutsen umeei...

b) Kanpotarren erlijino eritsiak

Kanpotarren gehiengo erromatar gudariak ziran edo Erromak Sortzaldetik bildutako arma gizonak, euren sendikoak alde batetik, eta bestetik, misiolariak, maisu barriek lez, baserritarrei,

hotz, *paganoei*, jakinduria barriko bidea erakusten etozenak, denak, halan be, Erromako Aginte militarren menpeko itxura egiten ebenak.

Gudariak Mitra jainkoa adoratzeko eben. Iranen sorturiko erleginoa zan hau, Hormuzen eskolatikoa. Zezenaren odola ixuri eta haren indarraz jabetze asmoa zan euren erritoetariko bat. Euren ikurretan, barriz, Hormuz eskolako hegadun eguzkiaren aroa agertzen zan. Erroman *Sol invictus* deitzen eutsoen ikur honeri, hotz, egunoz zuntzitzen ez den eguzkia. Eguzkiak, ekaitz handien artetik eta negu gorrien erasoetatik beti goitik urtetzen dauelako.

c) Eguzkiaganako jaiak Iruña-Beleian

Iruña Oka zaharrean Ekaiñez eta Oronzaroz, edo Subilaroz ospatzen ziran Eguzki jaunaganako jaiak eta jaiak. Ekaineko sutean sasiak erretako seinuaz gaizkinak garbitzeko erritua zan eta negu-mugan, barriz, sugatzen edo subilaz etxeko sutea berotzen zan. Halako amainua, amaren sua (B. Kapanaga) amak errituak antolatzen ebalako haren garra eta beroa, “ez biztu, ez itzali”... (J. M^a Satrustegi) edo “etxeko sua etxeko autsaz ezta zazu” jakituriaz etxeko guztien onerako urtean zehar beroak iraun egian. Arte honen lekuko, ikatz arrastoak ere ba-dagerz Iruña-Beleia aztarnategian.

Etxea bera ere santutegia zan, jainkozko *su* seinuak bertan irauten ebalako, hotz, suaz garbitua eta duindua zelako. Beraz, Inko Ama-Aita artekoak arremon onean bizi ebazan Iruña Okako jendeak eta halako armonian ospatzen ebezan urteko eguzki-mugak, negukoan aita surgaiez eta ama suaz arduratzen zirela.

Eguzkiaganako otoitzetan haulakoak bildu dira Gorbeiaiko artzainen artean: “Eguzkia ba doa bere amagana, bihar etorriko da, denbora ona bada”, edo beste hau: “Gaur poztu nauzu, eguzki, zatoz bihar ere, poztu naitean”.

Eguzkia, gainera, gizakien lagun zan eguneko bide eta ahaleginetan, hotz, bizitzan, eta gau ostean, heriotz ostean, alegia, gizaki barri berbizteko magia egina. Guzti hori ziurtatzen datoz gure hilobietako oroitarri asko, eguzkiaren irudia antzetzuten dutela eta *harrigizon* edo *Iduzki Saindu* deitzen direla.

d) “Gure Aita”, kristinauen otoitza

Kristinauek Aita Aginteko erleginotik etozen Ama Aginteko lurraldera. Kristinauek ez dabe izan fedea inkulturatzeko ardurarik gure egunotaraino, izan ere, eta ezin euki egikeen halako ardurarik Erromatarren Inperioan. Beraz, “*Pater noster qui es in caelis*” honela aldatzen dabe: “*Gure Aita sutan sarena*”... Ez dabe aldatzen *Aita gurea* latinaren erataria (J. Nikolasek ohartzen dauenez) euskeraren legera baino.

Zergaitik ez dabe aldatzen “*zeruetan sarena*”? Alde batetik, zerua Inko Amaren sinboloa, seinua edo tokia dalako, *Nut* formaren arketipoetan eta irudi ezagunean ikusten dogunez. Eserita egotea Ama jainkoari dagokio, bestalde. Ohar Isis Amaren sela. Izan ere, *eseri>essere>ser* dator eta bide beretik *assier* erromanikoetan. Aitaren ganora, barriz *egon/ jagon* zan eta, halatan *zeruetan zagozana* aldatu eben geroago baten. Kontuan hartzekoa da bestetik, *Mitraganako* jokerak, edo *Sol Invictus* seinuaren aitortpenak *Iduski* errainura, hotz, *Utu>su* arketipora bultzatzen zituela eta, *zeruetan* barik, *sutan* aitortzera behartzen.

Eguzkiaren errainuak, edo Ormuz eskolako eguzki hegadunak, izan be, ba dauka “eguzkia *sutan*” irudikatua antzik. Alde honetatik ikusita, Iruña-Beleia euskaldunek eta etorkin maisuek sormen ederreko erkideak izan zirela emoten dau eta, ezta lakoan, euren jakinduria ahal bestean zaindu ebela.

e) Herexia ala jakituria?

Euskaldunek, logika onean, bere hizkuntzako eta hizkuntzaren jakituria jarraitzen dabe, *Gure Aita sutan serana* onartuz, euren gogoko *Gure Ama zeruetan serana* formara ezin ebelako aldatu, eta gaitzerdiko herexia onartzea erabagi eben halabeharrez.

Halan ere, helduko da eguna eta jadanik ateetan dago, “*Ama gurea zeruetan sarena...*” formula esateko aldia etorriko dena, inork inori *hereje* deitu edo “hable usted cristiano” ohar egin barik, fedezko eskaria egin ahal izateko, bada Ama Agintea itzulerako bidean da.

8.3. Komunikazioa gazteleraz / Comunicación en castellano Communication in Spanish

Herejía en Iruña-Beleia

a) La época de las ostracas de Iruña-Beleia, fuente de herejías

Resumiendo, la gran herejía de la cristianización de Iruña-Beleia fue la imposición del injusto patriarcalismo religioso y político a una población que confesaba y veneraba a la Diosa Madre. Además de la prueba general de los escritos sobre la Religión Primitiva del Pueblo Vasco, tenemos dos testimonios hallados in situ de Iruña-Beleia entre los restos apartados por los invasores: el ara dedicada a la Diosa Madre de Iruña-Beleia por un devoto confeso de la Diosa y el hallazgo bajo tierra de la imagen decapitado de una “Dama” de gran tamaño. Llamado “Dama de Beleia”. Es lo que hizo Roma por toda Iberia.

Se discutió este cambio radical de la divinidad, declarando herejes a los seguidores de la Diosa Madre, según la costumbre del Imperio. A todo esto, los griegos de vasco y micénico *eritsi* “parecer” hacen *heresis* “*hereje*”, para podar a los contrarios. Los cristianos lo tenían fácil. No tenían idea de inculturación que ahora enseña la Iglesia.

Todo esto se discutía sobre todo en la Casa Valentina de Iruña-Beleia donde funcionaba una catequesis de niños, guiada por diversos maestros, propios y extraños al parecer.

b) Herejías de los advenedizos

Los advenedizos mayormente eran soldados del Ejército Romano, allegados de Oriente y Africa del Norte, entre los que había cristianos que ejercían de misioneros. Enrolados en el Ejército, misionaban al mismo tiempo a la gente rural, alejada de la cultura de las urbes.

Muchos soldados eran adoradores de Mitra, religión oriunda de la escuela de Hormuz en Irán. Uno de sus ritos consistía en bañarse en la sangre del toro, para obtener su vigor. Otros eran más adeptos a la adoración del *Sol Invictus*, que les recordaba el triunfo solar de todo contratiempo de embate atmosférico representado en la insignia de aro alado.

c) Devoción solar en Iruña-Beleia

Los nativos de Iruña-Beleia celebraban los solsticios de verano e invierno con los ritos llamados de Ekain “máxima altura solar” y en Oronzaro “tiempo de Orus” o Subilaro “tiempo tronco encendido” que calentaba las casas. En la hoguera del solsticio de verano, la quema de zarzas simbolizaba la limpieza de toda maldad moral y física y en el Subilaro constituía la casa misma como lugar sagrado.

Gracias a la presencia continua del “fuego” *su* el “hogar” *sute*, la casa era, purificada por la presencia de *Utu>su* “sol” y se consideraba como lugar sagrado y el *Subil* “el tronco encendido”, como toda leña de *suatze* “árbol” era el centro litúrgico oficiado por el ama de casa que ejercía como de sacerdotisa nata. El hombre traía la leña y la mujer cuidaba el fuego, *ez biztu, ez itzali* “ni llamees, ni te apagues” (J.Mª Satrustegi).

Entre las oraciones dedicadas al dios Sol se citan las del pastor de Gorbea: *Eguzkia ba doa bere amagana, bihar etorriko da, denbora ona bada* “el sol ya va hacia su madre, mañana vendrá, si atempera”, o esta otra: *Gaur poztu nauzu, eguzki, zatoz bihar ere, poztu naitean* “hoy me has consolado, Sol, ven también mañana, para que me consuele”. (E. Sorazu).

El “sol” *eguzki* era, por lo demás, el amigo del camino y el jaleo diario y magia de resurrección tras la noche de la muerte, como testifican las numerosas estelas de cabeza redonda de rayos solares, llamados *harrigizon* “hombre de piedra” (mágicos) o *Iduzki Saindu* “Santo Sol”.

d) “Gure Aita”, la oración cristiana

El “Pater noster” *Gure Aita* es la oración cristiana por excelencia, cuyo rezo implicaba la confesión de la nueva religión del salvación, cuya letra seguía “qui es in caelis” *zeruetan serana*. El guru nativo y el maestro advenedizo comprendió la objeción de conciencia que esta traducción plateaba a la religión de los nativos, ya que los símbolos materno-paternos eran arquetipos reconocidos en el entorno mediterráneo. Admitirían, por lo tanto, *Pater Aita*, pero no arrebatarían a la “Madre” *Ama* su sitio de honor y traducirían *sutan serana* “que eres ardiente”. La fórmula gustó también a los del *Sol invictus*, así que la fórmula *Pater noster qui es in caelis* la tradujeron así: *Gure Aita sutan sarena* “Padre nuestro que eres ardiente”.

Pero ¿por qué *eres* y no *estás*?” Por objeción de lengua que expresa la diversa forma de ser o estar de la Madre y del Padre. Recordemos a Isis coronada de su trono o también la forma *está sentado* del credo cristiano. Estar “sentada” *eseri* era la actitud típica de la Diosa Madre y “estar de pie” *egon*, del Padre. De *eseri* viene >essere>*ser* y *assier* en diversos románicos. Traductores modernos han traducido *Aita gurea zeruetan zagozana* “Padre nuestro que estás en los cielos”.

e) ¿Herejía o sabiduría?

Los maestros de la Iglesia católica, podrían aprender bastante de los maestros de la Casa Valentina de Iruña-Beleia en la inculturación de los pueblos en la fe del Evangelio, si ésta no hubiera quedado atrapada en la rémora milenaria del injusto patriarcado, el mismo que en plano académico ponen coto al euskera y judicializa en el político al pueblo que la mantiene.

Día vendrá, sin embargo, y está llegando, en que se podrá traducir y rezar, “*Gure Ama zeruetan sarena...*” sin que por ello nadie nos tilde de herejes o nos afee más con “hable usted cristiano”, pues la Diosa Madre, es un arquetipo inherente a la persona.